

Nafarroako Liburutegiak irakurketarako hiru klub jarri ditu abian

Helduentzako Haurren Literaturako Klubean, Haurren Irakurketa Klubean eta Eleberri Beltzaren Klubean parte hartu daiteke

Nafarroako Liburutegiak irakurketarako doako hiru klub jarri ditu abian ikasturtearen hasierarekin batera. Klub horietan Nafarroako liburutegi publikoetako erabiltzaileen txartela izanik bakarrik parte hartu daiteke.

"El cuentoscopio" izeneko irakurketarako kluba helduentzat da eta haurrentzako literaturari buruzkoa da; Villar Arellanok koordinatuko du. Klub hori haurrentzako literatura haurrentzako bakarrik ez delakoaren ideia oinarri hartuta sortu da. Heldu ugarik ere haurren liburuak istorio errazez, alegiazkoez eta zentzugabeez gozatzen dute, baita orrialdeak betetzen dituzten irudi artistikoez ere. Irakasleei, amei, aitei eta liburutegietako langileei zuzenduriko irakurketarako kluba da.

Aurkikuntzak partekatu, iruzkinak eta haurrentzako literaturari buruzko iritzia trukatu eta argitaletxeetako liburuak nabarmenez lagunartean jarduteko topaketak dira.

Hiruhileko bakoitzean genero, gai edo motibo literario batez jardungo da bi edo hiru saiotan, irakurketa berari buruzko ikuspegiak partekatu edo motibo berari buruzko askotariko ikuspuntuak bateratuko dira lanen aukeraketa eginez. Kluba urriaren 13an, osteguna, aurkeztuko da 19:00etan beheko solairuko erabilera anitzeko aretoan. Parte hartzeko, izena emateko fitxa bete eta haurren liburutegian entregatu behar da.

"El club de los Zampacuentos" 8 eta 11 urte arteko haurrentzako irakurketa kluba da, eta hori ere Villar Arellanok koordinatuko du. Kluba urriaren 20an, osteguna, aurkeztuko da 18:00etan haurren liburutegian. Hiruhileko honetan landuko diren gaietako batzuk irakurketa higuinargiak eta nazka ematen duten liburuak izango dira. Parte hartzeko, izena emateko fitxa bete eta haurren liburutegian entregatu besterik ez dago.

"La letra roja" izeneko kluba eleberri beltzean espezializaturikoa izango da, helduei zuzendurikoa. Ana Tere Artigasek koordinatuko du. Kluba urriaren 27an, osteguna, aurkeztuko da 19:00etan beheko solairuko erabilera anitzeko aretoan. Parte hartzeko, izena emateko fitxa bete eta norberak liburuak maileguan hartzeko harrera-mahaian entregatu besterik ez dago.